

Berbaro antzerki taldea



Berbaro elkarteak berpiztu du, baina izen artistiko barik, ezta?

Elkartearen inguruan batu gara, baina aparteko saioak ere egiten ditugu. Hau da, talde propioa dugu eta izena ere bai, Amartiti. Berbarok babesa eskaini eta eman digu, eta orain arte egindakoa haren izenean egin dugu.

Umeei bakarrik zuzenduta?

Bai, Berbaro antzerki taldearen izenean egiten ditugun lanak bai, umeei zuzendurikoak dira denak.

Haur Literatura Aretoa izan da guretzako bul-tzatzaile, honetarako prestatu izan baititugu, orain arte, gure antzezlanak. Ipuinak aukeratu ostean, egokitu egiten ditugu eta, hauen bitartez, umeen sentimenduak ukitu eta

azaleratzen saiatzen gara.

Itzala, koloreak, adiskideak, haserrea, barrea... negarrik?

Gizakiak berezkoa du sentipena. Negar egitea barre egitea bezain osasungarri eta komenigarria da. Umeekin errazagoa da barre eragitea, baina bestelako sentimenduak ere azalerazi behar direlakoan gaude: haserrea, barrea, beldurra, nahigabea...

Pentsaraztea ere lortu gura dugu gure antzezlanekin.

Haur Literatura Aretoa gainean dugu, zerbait aurreratu dezakezue?

Aurtengoan beldurraren gainean arituko gara. Asmoa ez da beldurra sortaraztea, zer den ezagutaraztea baino: beldur erak, zelan aurre egin...



berba
lagun

Ikasturte berria hasi da Berbalagunentzat ere.

Laugarren urtez batuko dira lagun taldeak elkarrekin euskeraz berbetako eta aurten berrikuntzak aurkituko dituzte gainera: partaideei Durangaldeko euskerazko eskaintzari buruzko agenda emanango zaie, Berbarok antolatutako ekintzetan bazkideen deskontuak izango dituzte, sagardotegira elkarrekin joango gara, kultur ekintza gehiago izango ditugu... Aurten denok Berbalagun! Animatu eta eman izena elkartera edo 639400786 telefonora deituz.

Urte bi, eta aurrera... ZORIONAK PLATERUENA

Plateruenak urte bi bete zituen urriaren 28an. Benetan egun handia izan zen Berbarotarrantzat eta Plateruenean burubelarri lanean dabilen langile, boluntario eta laguntzaile guztientzat.

Kulturgintzaren haizetan elkartu eta amets egiteko bidea eman digun proiektu eder honek merezi duen neurriko ospakizuna izan zuen larunbatean. Eguerdian herri bazkaria, iluntzean Igor Elortza, Xeberri, Ander Ertzilla eta durangaldeko herri ezberdinetako dantzariak osaturiko ikuskizun berezia, ostean luntxa eta nahi zuenarentzat gaua luzatzeko aukerako giroa. Horiek guztiak batu ziren Plateruenean ibilbidean bere lekutxoak izango duen egun izendatuan.

Alberto Errazti lehendakariak azaldu zuenez, oster, hamaika dira etorkizunean Plateruenak egiteko dituenak, ezinbestez herri-erakundeen laguntasunaz eta herritarren bultzadaz burutuko direnak. Jaso ezazue, bada, berbarotar guztiok, Berbarok bultzaturiko egitasmo honetan parte hartu eta kulturaren bidez euskera indartzen eta euskeraren bidez kultura aberasten jarraitzeko gonbita, hirugarrena eta beste hamaika bete artean! Zorionak Plateruena.



Luntxeko giro ona, eta goian eskualdeko dantzariak

Urteera urriak 27-28-29
LANDA-OTXANDIO

ORIENTEERING, TAILERRAK, BERTSOLARIAK, MENDI IBILALDIA, MAHAI-INGURUAK... 14 urtetik aurrera

izena emateko epea: urriaren 19tik-25era
BERBARO ELKARTEA, Pinondo etxea, Durango
telef. 94 620 25 40 / 676 468 121 gazteak@berbaro.com

18 euro

Gazte taldea abian barriro!!

Badira urte batzuk elkartaren inguruan gazte talde iraunkor eta aktibo bat egon ez dela. Hala ere, aurtengo plangintzaren helburuetariko bat gazte taldeari garrantzia emanez, ahaleginak egin eta inbertsioren bat edo beste ere eginez, gazteei indarra ematea izan da. Honetan ezinbestekoa izan da bazkide batek azken bi urteotan udalekuak antolatzen emandako laguntza. Eskerrik asko berari!

Berak lagundu digu Guezan ba! zenaren espiritua hartu eta gazte taldearen oinarriak jartzten.

Orain, arrazoi desberdinak medio, eta ekintzak estrukturatu eta programatuagoak izateko, Guezan ba! izandakoaren oroitzapen onenak gogoan ditugula, gazte taldeak elkartaren izen bera hartuko du.

Gazteok ekinean gara jada. Horren adierazle da urriaren 27tik 29rako asteburuan Garaio aintziraren inguruetan dagoen Otaza baserrian eginiko bilera. Bertan, giro ezin hobean, urtean zehar egingo diren ekintzak adostu genituen batu ginen 25 gazteon artean. Batzartzen ere hasi gara eta hemendik gabonetara arteko egutegitxo bat ere zehazten hasita gaude.

Ekintzak anitzak dira, baina oinarritzat euskera bultzatzea hartuta, aurrera egiteko prest gaude. Guk, lehenengo hazia jarri dugu. Orain, beste inor animatu eta gurekin zuhaitz gazte hau zelan hazten den ikusi eta inguruak jorratzen lagundu nahi izatekotan, gonbitea hor duzue.

17. HLA

Artikulu bati emateko, izenburu laburra benetan. Haur Literatur Aretoaren ibilbidea, ordea, 17 urte luzetan zehar ikusi dugu. Liburu eta Disko Azokaren inguruan jaito eta urterik urte zabaldu eta handiagotu den proiektua da.



Ipuin kontalariaren saio bat


Bidean gorabehera handiak izan dira: sasoi eskasago eta hobeak, gai batzuei eutsi, beste batzuk galdu. Proiektua aurrera eroateak buru hauste nahikotxo sortzen ditu eta koordinazio lan izugarria ezinbestekoa da. Hala ere, elkarreko lanaren bidez, Durangaldean ondo oinarrituta dagoen ekintza bihurtu da. Gauza batzuk ez dira ondo finkatu ordea. Horregatik, egokitze prozesuan murgildu eta oinarriak ondo jartzen gabiltza, aukerak aztertu eta aurrerantzean mugak zabalitzeko. Hor dago erronka!!

Ekimen honetan edonoren laguntza eskertuko genuke. Beraz, hurbildu gugana, bai Pinondoko bulegoan, baita Azokako aretoan hobetze proposamenak entzuteko prest egongo gara eta.

ANBOTO TB

Askok jakingo duzueenez Eusko Jaurlaritzak tokiko telebisten gaineko legea argitaratu berri du.

Orain da beraz, Durangaldearentzat euskera hutsezko telebista sortzeko garaia, Anboto Telebista sortzeko garaia! Bertakoek, bertakoen-tzako egingo duten euskera hutsezko telebista sortzeko garaia. Guztion indarra behar-kodugu Durangaldeko leihoe-tatik Anboto ikustez gain, Anboto TBren leihotik Durangaldea ikusi ahal izateko.



Mikologiari buruzko ikastaroa

BERBARO elkarteak, Errotari Mikologi Elkartearekin batera, mikologiari buruzko ikastaroa antolatu du. Honen gainean jarduteko aukera paregabea duzu.

LEKUA: Pinondo etxea


NOIZ:

- Azaroaren 21ean: bereizketari buruzkoa.
- Azaroaren 23an: bereizketari buruzkoa.
- Azaroaren 28an: perretxiko batzuk eramango ditugu, bereiztu eta jangarriak direnak afaltzeko prestatu.
- Azaroaren 30ean: toxikotasunari erreparatu diogu.

PREZIOA: 15 euro (Berbaroko bazkideentzat 10 euro)

IRAKASLEA: Igor Alberdi

www.errotari.com (Argazki galeria, ondoen gaineko informazioa, foroa...)



Hi, artista, hi!

**lehiaketaren
2. edizioa
hemen da!**

Lehiaketak iaz izandako arrakastaren ondoren, aurten ere antolatzea erabaki dugu. Beraz, badakizu, 6 eta 12 urte bitarteko ume eta gazteak "gabonak" gaiaren inguruko eskulan, eskutitz eta marrazkiak egitera! Gainontzeko baldintzak www.berbaro.com web gunean aurkituko dituzue.

Argitalpen berriak

HAUR ETA GAZTEEN IRAKUR - GIDA..

Berbaro elkarteak argitaratuta

Azaleko irudia:

Elixabete Villar

Disainua eta maketazioa:

Di-Da.



Badira urte batzuk Berbarok Haur eta Gazteen irakur gida argitaratzen duela.

Aurtengo gidak berrikuntza batzuk ditu, formatua handitzeaz gain, barruko sailkapena ere aldatu da.

Irakur gidan, 2 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendutako 2005eko liburu gomendagarrien eta 2006ko argitalpen berrien zerrenda ikus daiteke.

Gida honen helburu nagusia da guraso, irakasle, ikasle eta umeei, zalantzak argitu eta laguntzea liburuak aukeratzeko orduan. Beste helburu bat da, Euskal Liburu eta Disko Azokarako erreferentzia gida izatea edota urtean zehar kontsultatzeko gida erabilgarria izatea. Guztira 3.000 ale banatzen dira Durangaldeko eskoletako umeen artean, liburutegietan, liburu dendetan, eta Liburu eta Disko Azokan. Lana osatzeko, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Liburu Mintegia eta Gerediaga Elkartearen laguntza izan du Berbarok.

Ikimilikili... klik euskaraz

DENDA BIRTUALAK Domotika garaian gaude.

Gaur egun internet bidez erosketak on line egiteko aukera zabala dugu. Internet izanez gero, ez dugu zertan etxetik irten, ez bankuko eragiketarako egiteko, ez jakiak erosteko, ezta jendearekin hartu emonean aritzeko ere.

Hau guzti hau eta gehiago ordenagailuaren bidez egin daiteke.

Liburuak, azken nobedadeak, erosi nahi dituzula? hona hemen horretarako aukera ematen diguten argitaletxe batzuk (sarean beste hainbat egongo da, jakina):

<http://www.alberdania.net/>, liburuen gaineko informazioa, liburu berriak, eta... erosketa saskia.

<http://www.edescllee.com/>, web gunearen sarrera erdaraz dagoen arren, ezkerreko zutabearen, Durangoko Liburu eta Disko azokarako argitaratu dituzten nobedadeen gaineko informazioa dakar. <http://www.elhuyar.org/>, oso txukuna eta praktikoa Elhuyarren gunea, denetarik dago. Hiztegi teknikoak, DBH eta Batxilergorako azken nobedadeak, kontsultako eta zientzia-dibulgazioko obrak aurki ditzakezu.

<http://www.txalaparta.com/> eurek argitaratzen dituzten katalogoak eta azken nobedadeak ikusteko aukera ematen dute, besteak beste..

<http://denda.ueu.org/nobedadeak.cfm/>, Udako Euskal Unibertsitatearen denda birtuala. Argitaratzen dituzten liburuak %10eko deskontuarekin eros ditzakezue.

Web gunek praktiko-praktikoak direnik ezin ukatu baina liburu dendetako usaina eta saltzaileekin izan ohi dugun berbaldia ... horrek ezin on line erosi! Ala bai...?.




Iruditzen...

TXOSNA

Aspaldiko partez Berbarok txosna ipini du aurtengo San Fausto jaiztan eta jai giroan guztiz murgilduta ibili gara. Eskerrik asko txandak betetzen lagundu diguzuen guztioi!!!



IKASTAROAK



Irailaren bukaeran adin desberdinetako 20 bat andre gure burua hobeto defendatzen ikasi genuen! Dagoneko mikologia ikastaroa ere antolatuta dago eta izena eman dezakezue.